Usurbilgo Udala

PELAIOENEA BIRGAITZEKO PROIEKTUA IDATZI ETA OBREN ZUZENDARITZA ERAMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIAK. PROZEDURA IREKIA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xede zuzena da Usurbilgo Pelaionea Birgaitzeko Egikaritze Proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritzaren kontratazioa. Pelaioenea eraikina Usurbilgo Kalezar auzoan kokatzen da, Belmonte kalea 8an.

- CPV Kodea: 71200000-0 Arkitektura-zerbitzuak eta horiei lotutako zerbitzuak.

- Loteak: Lote bakarra da. Beharrezkoa da esleipenak proiektua eta zuzendaritza fakultatiboa barne hartzea, proiektua idatzi duten eta proiektua erabat ezagutzen duten profesionalak zuzendaritza fakultatiboa beren gain hartzen dutenak direla ziurtatzeko; izan ere, lote bakoitzerako kontratisten koordinazioak arriskuan jar dezake kontratuaren exekuzio egokia.

2. EXEKUZIO EPEA

- EGIKARITZE PROIEKTUAREN IDAZKETA FASEA: Exekuzio Proiektua aurkezteko epea 90 egun naturalekoa izango da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik hasita.
- BIRGAITZEAREN OBRA FASEA: Obra zuzendaritzari dagokion zerbitzuaren iraupena birgaitze proiektuan jasotako obren exekuzio epeari egokituko zaio.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren gehienezko aurrekontua eta lizitazioaren zenbatekoa 50.000 eurokoa da, gehi %21eko BEZari dagokion 10.500 euro, guztira 60.500 euro. Fase bakoitzari dagokion aurrekontu banakatua honakoa da:

- Egikaritze Proiektuaren idazketa 30.600 euro (37.026 euro BEZ barne)
- Obra zuzendaritza 19.400 euro (23.474 euro BEZ barne)

Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Obra zuzendaritzaren eskaintzak obra zuzendaria eta obraren exekuzio zuzendariaren eskaintzak barneratzen ditu. Prezio horretan sartuta egongo dira kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren ondorioz udalak bete beharreko obligazioei erantzuteko nahiko kreditu dago honako 2021eko aurrekontuko kontu-sailean: 1.6000.622.333.00.01 2021 (3691).

Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

5. ORDAINTZEKO ERA

Kontratuaren prezioa honela ordainduko da:

- Egikaritze Proiektuari dagokion kopurua: Egikaritze Proiektua aurkeztu eta Udalak onartzen duenean.
- Obra zuzendaritzari dagokion kopurua:
    - %70a arte obra ziurtagiriekin batera fakturatuko da, obraren kopuruaren arabera.
    - %30a obra-onarpenaren akta sinatzerakoan.

Esleipendunak, bere borondatez egindako berrikuntza edo hobekuntzen ordainketa jasotzeko eskubiderik ez du izango, nahiz horiek Administrazioarentzako onuragarriak izan.

Prezioa ordainduko da lanak egin eta faktura aurkeztu eta gero, zeina gainbegiratu eta kontrastatuko duen pertsona arduradunak, eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko duen.

Faktura onartuta, hura ordainduko da legezko epeetan, xedatutakoak 198. artikuluan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena.

Enpresa kontratistak faktura aurkeztuko du formatu elektronikoan, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu orokorraren bidez (FSPOe) (https://gfaegoitza.net/SarreraPuntua), udal aurrekontua exekutatzeko arauan ezarritakoaren arabera, 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, bultzatzen duena faktura elektronikoa eta sortzen duena fakturen kontularitza erregistroa sektore publikoan.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:
1. Kontabilitate Bulegoa: LO1200739
2. Organo kudeatzailea: LO1200739
3. Unitate izapidetzailea: LO1200739

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez da preziorik berraztertuko.

7. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen

Behin betiko bermea:

Kontratuaren adjudikazioduna, hartutako obligazioak beteko direla bermatzeko, behartuta dago behin betiko bermea jartzera, adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 hain zuzen, BEZa sartu barik.

Epea, berme hori jartzeko, 10 egun baliodunekoa izango da, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, eta jarri ahal izango da azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena, 108. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz, eskudirutan jarritakoak izan ezik, horiek Usurbilgo Udalaren edozein kontu korrontetan sartu behar dira eta.

Berme osoa edo, hala badagokio, zati bat itzuli behar bada, egingo da Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera, bermearen epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak betetzen dituenean kontratuaren obligazio guztiak.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. PROZEDURA ETA ZELAN ADJUDIKATU

Kontratu hau adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko da.Kontratu hau prozedura ireki elektronikoaren bidez adjudikatuko da, SPKLn ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta bera garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

Lizitazio honen iragarkia Usurbilgo Udaleko kontratugilearen profilean argitaratuko da (www.usurbil.eus), Euskadiko kontratazio-plataformaren bidez.

Kontratu hau esleipen irizpide ugari erabiliz adjudikatuko da.

MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKAGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK. Gehienez 51 puntu (C artxibo elektronikoa)

1.- Kontratuaren prezioa: gehienez 39 puntu

a) Egikaritze Proiektuaren idazketa (gehienez 23 puntu)

Puntuaziorik handiena emango zaio eskaintza ekonomikoenari, eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: eskaintza ekonomikorik baxuena zati baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

Pl= Ob/Ol x 23

Non-eta:
Pl: lizitatzailearen puntuazioa
Ob: eskaintzarik txikiena
Ol: lizitatzailearen eskaintza

Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak SPKL-ko 149.4 eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85. artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira.

b) Obra Zuzendaritza (gehienez 16 puntu)

Puntuaziorik handiena emango zaio eskaintza ekonomikoenari, eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: eskaintza ekonomikorik baxuena zati baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

Pl= Ob/Ol x 16

Non-eta:
Pl: lizitatzailearen puntuazioa
Ob: eskaintzarik txikiena
Ol: lizitatzailearen eskaintza

Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak SPKL-ko 149.4 eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85. artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira.

2.- Egikaritze Proiektuaren idazketa epearen murrizketa: gehienez 12 puntu

Lizitatzaileek Egikaritze Proiektuaren idazketaren gehienezko epea murriztu ahal izango dute. Murriztutako 7 egun natural bakoitzeko (ez dira tartekoak onartuko), 4 puntu emango dira, gehienez 12 puntu.

MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKAGARRIAK EZ DIREN IRIZPIDEAK. Gehienez 49 puntu, (B artxibo elektronikoa)

a) Irizpide jasangarrien araberako irtenbideak (gehienez 39 puntu)

Gehienez ere 39 punturekin baloratuko dira legeak eskatutakotik haratago dauden soluzio jasangarriak ematen dituzten proposamenak. Parametro hauek hartuko dira kontuan:

• Autosufizientzia energetiko maximoa. Energia-kontsumo ia nulua lortzera bideratutako proposamenak baloratuko dira (20 puntu, gehienez).

- Energia-eskaria ahalik eta gehien murrizteko diseinu egokia eta parametro bioklimatikoak (soluzio pasiboak) dituzten eraikuntza-soluzioak (10 puntu, gehienez)

- Energia-kontsumoa murrizteko irtenbideak (argiztapen-sistemak kontrolatzea, energia-kontsumoak monitorizatzea eta bistaratzea...) (10 puntu, gehienez)

• Energia berriztagarriak erabiltzea eta eraikinean integratzea (9 puntu, gehienez)

Eraikinean errespetuz integratzen diren energia-iturri berriztagarriak aprobetxatzera bideratutako irtenbideak baloratuko dira.

• Ekonomia zirkularra (10 puntu, gehienez)

Eraikuntza-materialetan ingurumen-ezaugarriak zehazten dituzten proposamenak baloratuko dira (baliabide berriztagarrietatik datozen materialak, materia birziklatuarekin egindako materialak, ekoetiketa ofizialetako irizpideak betetzen dituzten materialak...).

b) Ingurua eraikinaren erabilerarekin eta programarekin integratzea (gehienez 10 puntu) Gehienez ere 10 punturekin baloratuko dira ingurua eraikinaren erabilerarekin eta programarekin hobekien integratzen duten proposamenak.

9. ZER GAITASUN ETA KAUDIMEN BEHAR DEN KONTRATATZEKO

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona naturalek edo pertsona juridikoek, betiere ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe badira jarduteko, egiaztatzen badute kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, eta ez badaude sartuta debekuetako batean ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenaren 71. artikuluak xedatuak.

Halaber, beren kabuz egin ahal izango dute edo baimendutako ordezkari baten bitartez, ahalordetzaren bidez, hartarako emana. Pertsona juridiko baten izenean bere kideren bat aurkeztuz gero, agiriz frogatu beharko du ahalmendurik dagoela hori egiteko. Kasu batean nahiz bestean, ordezkariari ere eragiten diote kontratatzeko dauden ezintasun arrazoi horiek.

Gainera, pertsona juridikoen helburua izango da jarduerak egitea, zuzenean lotura dutenak kontratu honen xedearekin, eta edukitzea antolaketa bat behar beste langile eta materialekin, kontratua egoki exekutatzeko.

Zer gaitasun eta kaudimen behar den kontratatzeko egiaztatuko du ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAK BAKARRIK, agiri hauek aurkeztuko ditu:

1.a) Enpresariaren nortasun juridikoaren egiaztagiriak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak.

Nortasuna egiaztatuko da hauek aurkeztuta:

- Nortasun Agiria, lizitatzaileak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate baten ordez jardunez gero, Nortasun Agiria eta ahalordetze eskritura. Agiriak kalifikatzeko egintzan, ofizioz, ahalordetza askietsiko da.
- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa eskritura edo, hala badagokio, aldaketa eskritura, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan, eta identifikazio fiskaleko kodea, inskripzioa eskatu dakiokeenean, aplikagarria zaion merkataritza legeriaren arabera. Hala izan ezean, jarduteko gaitasuna egiaztatuko du eraketa eskritura edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrerako egintzaren bidez, non jasoko diren jardueraren arauak, eta inskribaturik egongo diren, hala badagokie, dagokion erregistro ofizialean. Europar Batasunean estatu kideetako enpresari ez espainiarrak direnean, egiaztatu behar dute inskribaturik daudela lanbide edo merkataritza erregistro batean, baldintza hori eskatzen badu estatuko legeriak.
- Hainbat enpresarik lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa elkarte bat eratuz, elkartekide bakoitzak egiaztatu beharko ditu gaitasuna eta kaudimena jarduteko, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, konpromisoa hartuko dute formalki ABEE (aldi baterako enpresa elkartea) eratzeko, kontratuaren adjudikaziodun irtenez gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute ABEEko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

1.b) Erantzukizunez eta berariaz adieraztea ez dagoela sartuta kontratatzeko debekuetako batean ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenaren 71. artikuluan aipatzen direnak.

1.c) Ziurtagiriak, adieraziz egunean dagoela zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzarekin, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak.

1.d) Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztagiria:

• Arrisku profesionalengatiko erantzunkizun zibileko segurua, gutxienez 80.000 euroko kopuruagatik.

1.e) Kaudimen teknikoa edo profesionala. Egiaztatu behar da agiri hauek aurkeztuta:

• Azken hiru urteetan eraikin publiko nahiz historikoen birgaitze-obren exekuzio proiektu bat idatzi izana egiaztatu beharko da eta obra horren kontrataren aurrekontua, guztira, 100.000 eurokoa izango da gutxienez (BEZa kanpo).

• Era berean, azken hiru urteetan eraikin publiko nahiz historikoen birgaitze-obren zuzendaritza bat eginda eduki beharko da, gutxienez 100.000 euroko kontrata-aurrekontua duten eskaintzak aurkezteko azken egunetik kontatzen hasita.

• Obraren Egikaritze Zuzendaritza: arkitekto tekniko batek eraikin publiko nahiz historikoen birgaitze-obren exekuzioaren zuzendaritza eraman beharko du azken hiru urteetan. Esleipenaren zenbatekoa, BEZik gabe, gutxienez 100.000 eurokoa izango da kontratuaren xedearen izaera bereko edo antzeko eraikuntzari dagokion lan batean.

- Proiektua idatziko duen gutxieneko lan taldea:

- Proiektua idazteko teknikari bat: titulazioa Eraikuntza Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritakoaren baitan eskatuko da.

- Obra zuzendaritzarako teknikari bat: titulazioa Eraikuntza Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritakoaren baitan eskatuko da.

- Obraren egikaritze zuzendaritzarentzat teknikari bat: titulazioa Eraikuntza Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritakoaren baitan eskatuko da.

1.f) Atzerriko enpresak badira, adieraztea edozein alorretako Espainiako epaitegi edo auzitegietako jurisdikzioaren mende jarriko direla, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta uko egingo diotela, hala badagokio, atzerriko jurisdikzioari, halakorik egokituz gero lizitatzaileari.

1.g) Bere jardueragatik eragindako **kalteei erantzuteko erantzunkizun zibileko aseguru orokorra** eduki beharko du, gutxienez **300.000 eurokoa, 150.000 euroko azpimugarekin**, gerta litezkeen kalte guztiak bere gain hartzeko. Baldintza hau frogatzeko, jatorrizko poliza eta primen ordainagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

*** Dokumentazio hori guztiori egiazko kopian aurkeztuko da.**

Lizitatzaileak egonez gero inskribatuta Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, aurkeztu ahal izango dute ziurtagiriaren kopia konpultsatua, erregistroko letratu arduradunak egina ziurtagiria, 1.a), 1.b) eta 1.c) ataletan eskatzen diren agirien ordez.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honetako espedientea, hari gaineratzen zaion dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Usurbilgo Udalaren **Kontratatzailearen Profilaren** bidez eskuratu ahalko dira, lizitazio honen iragarkia aipatu **Kontratatzailearen Profilean** argitaratuta agertzen den unetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu bitartean. Harremanetarako:

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g – 20170 Usurbil
Tel. 943 371951 / Faxa 943 368167
Helbide elektronikoa: kontratazioa@usurbil.eus

Kontratatzailearen Profila: www.usurbil.eus

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira esklusiboki, 9/2017 SPKL legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunei jarraiki, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 16 EGUN NATURALEKO epearen barnean (15:00ak arte).

Proposamenak isil-gordekoak izango dira eta izaera hori bermatzeko neurriak hartuko dira proposamenak irekitzen diren unera arte.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko beharrezkoak diren informazio eta zehaztapen teknikoak, dataren zifratzea eta baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman

(www.contratacion.euskadi.eus) daude.

AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Lizitazio elektronikoaren erabiltzaileentzako Arreta Zentroa: 945016298 (07:45 - 20:00) bitartean.

Interneteko helbidea: www.euskadi.eus

Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

PROPOSAMENEN EDUKIA:

Enpresa lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO (A, B ETA C)** aurkeztu beharko dituzte.

1) "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "AGIRI ADMINISTRATIBOAK" izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu:

Erantzukizunpeko adierazpena, Kontrataziora-ko Agiri Europar Bakarra (KAEB) ereduaren arabera, plegu honekin batera doana I. eranskin gisa.

2) "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "PROPOSAMENA TEKNIKOA" izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu: 8. klausulan eta plegu teknikoetan zehaztutako eta balio-judizio baten arabera balioesteko esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa.

Artxibo honetan ez da sartu behar, inola ere ez, modu automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokion ezein datu, "C" artxibo elektronikoan barneratu beharko direlarik horiek.

3) "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA" izendatuko da eta, hauek jasoko ditu:

- Proposamena plegu honetara II. eranskin modura gaineratzen den ereduaren arabera.

11. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartuko.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia izango da:

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alkatea, Mahaiko Lehendakari gisa (ordezkoa Lur Etxeberria Gurrutxaga)
2. Lur Etxeberria Gurrutxaga Zerbitzu saileko zinegotzia, Bokal gisa (ordezkoa Beñat Larrañaga Urdanpilleta)

3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokal gisa (ordezkoa Olatz De Miguel Arnaiz)

4. Xabier Olano Jauregi Udal Kontu-hartzailea, Bokal gisa (ordezkoa Gorka Lizarraga Erro)

5. Amaia Illarreta Izeta, Hirigintza saileko teknikaria, Bokal gisa (ordezkoa Ariadne Etxetxikia Barbero)

6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkari gisa (ordezkoa Virna Zuñiga Carrillo)

Mahaiaren bilerara, gainera, udaleko arduradun teknikoak joan ahal izango dira, mahaiak eskatzen duen kasuetan.

13. AGIRIAK KALIFIKATZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, ondorengo jarduketak egingo dira:

1.- "A" ARTXIBOA IREKITZEA.

A artxiboa aztertuko da, aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, mahaiak gehienez ere 3 egun naturaleko epea eskainiko du akatsak zuzentzeko.

2.- "B" ARTXIBOA IREKITZEA.

A artxiboko agiriak baloratu ondoren, B artxiboa irekiko da kontratatzailearen profilean adierazten diren egun eta orduan, eta jendaurrean streaming bidez eskainiko da plataformaren bidez. Lizitazioa streaming-en emango den esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

B artxiboa ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak B artxiboan aurkeztutako dokumentazioa helaraziko dio hori baloratzeko ardura duen teknikariari, eta horrek balorazio-txostena egin beharko du C artxiboa ireki aurretik.

3.- "C" ARTXIBOA IREKITZEA.

B artxiboako agiriak baloratu ondoren jakinaraziko da iritzi-balioetan oinarritutako irizpideengatik eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa. Ondoren C artxiboa irekiko da kontratatzailearen profilean adierazten diren egun eta orduan, eta jendaurrean streaming bidez eskainiko da plataformaren bidez. Lizitazioa streaming-en emango den esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html

- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

III.- KONTRATUA EXEKUTATZEA

15. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua adjudikatzeko akordioan udal teknikari bat izendatuko da, kontratua exekutatzearen arduraduna, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 62. artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

Kasu honetan, Hirigintzako Teknikaria izango da.

16. KONTRATUA EXEKUTATZEA

Ondasunak entregatu eta jarri behar dira agiri honetan zehaztutako denboran eta lekuan, baldintza teknikoen eta administrazio baldintzen arabera. Nolanahi ere, administrazioak, kontratua exekutatu bitartean, ahalmena izango du ezartzeko itundutako lekua ez den beste leku bat.

Kontratua exekutatuko da kontratistaren arriskuz eta gorabeherez, eta ez du izango eskubiderik kalte-ordainak jasotzeko, baldin eta, administrazioari entregatu baino lehen, ondasunetan galerarik, matxurarik edo kalterik izan bada, ondasunok jasotzean udala berandu ez badabil, behintzat.

Kontratuaren exekuzioa beteko da administrazioak zuzenduta, ikuskatuta eta kontrolatuta, zeinak ahalmen horiek erabiliko dituen bai idatziz bai ahoz.

Kontratua ondo ez doanean kontratistak edo haren mendeko pertsonek egintza batzuk egiteagatik edo ez egiteagatik ezer, administrazioak agindu ahal izango du beharrezko jotzen dituen neurriak hartzeko, kontratua egoki eta behar bezala bete dadin.

17. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK (BALDINTZA BEREZIA)

Enpresa kontratatuak derrigorrean bete behar ditu lanari buruz indarrean dauden legezko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun edo higienekoak, kontratu honetako xede diren zerbitzuetan enplegatzen dituen langileei dagokienez, eta administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek ez badira betetzen.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.

Enpresa kontratatuak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

Enpresa kontratatua behartuta egongo da informazioa ematera, baldin eta eskatzen badiote informazioa emateko kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan zer lan baldintzak aplikatzen zaizkien.

Klausula honetan jasota datozen betebeharrak jotzen dira kontratuaren baldintza berezitzat, eta ez bada betetzen, larritzat joko da eta ekarriko du kontratua suntsiaraztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategineko 211.f) artikuluan jasoa.

18. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN BESTE BATZUEI KALTEAK SORTUZ GERO.

Enpresa kontratuak bere gain hartuko ditu kalteak edo galerak, sortzen bada halakorik kontratua exekutatzean egindako lanen ondorioz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiengatik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 203. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta eran.

Kontratu honetan aurreikusitako aldaketatzat jotzen da proiektu aldatuak eta zuzendaritza fakultatibo aldatuak idaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 204. artikuluan (aurreikusitakoak) eta 205. artikuluan (aurreikusitakoak ez direnak) aurreikusitako balizko aldaketen ondorioz obra-kontratua gauzatzean sor daitezkeenak.

Kontuan izan behar da, gehiegizko neurketagatik obrak likidatzen badira, horien zuzendaritzak ez duela zerbitzu-saririk sortuko. Beraz, obraren likidazioan hasieran aurreikusitakoa gainditzen duen neurketa bat egiten bada, horrek ez du adjudikaziodunaren aldeko zuzendaritza-ordainsari berririk sortuko.

Era berean, aldaketak adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen akats, ez-egite edo aurreikuspenen ondorio badira, esleipendunak aldatutako proiektua egin eta zuzendu beharko du, inolako zenbatekorik kobratzeko eskubiderik izan gabe, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoaren arabera egon daitezkeen kalte-ordain eta erantzukizunak alde batera utzita.

20. ONARTZEA ETA BERME EPEA

Lanak entregatuko dira Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 210. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta horiek udaleko zerbitzu teknikoek aztertu ondoren, proposatuko da horiek onartzea, edo, kontrakoa bada, idatziz emango dizkio kontratistari beharrezko jarraibideak, antzemandako akatsak zuzentzeko, eta idatziz jasoko da epea hura zuzentzeko.

Era berean, urtebeteko legezko epea jarri da, onarpen formala egiten den egunetik aurrera, zeina ezarri den berme gisa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean xedatutakoen ondorioetarako.

- Egikaritze Proiektuari dagokion kopurua: Egikaritze Proiektua aurkeztu eta onartzen denetik kontatzen hasita.

- Obra zuzendaritzari dagokion kopurua: obra-kontratua jasotzen eta onartzen den egunetik kontatzen hasita.

Administrazioa konturatzen bada, berme epean, hornitutako ondasunak ez direla egokiak lortu nahi den helbururako, enpresa kontratuari egotzi dakizkiokeen bizio edo akatsengatik, eta uste badu haiek birjartzea edo konpontzea ez dela nahikoa helburu hori lortzeko, baztertu ahal izango ditu, epe horretan, eta enpresa kontratuaren kontura utzi.

Epe hori igarotzen bada administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

21. EZ BETETZEAGATIK ZIGORRAK KONTRATISTARI

A) KONTRATUAREN EXEKUZIO EPEEI BURUZ

Baldin eta enpresa kontratatua berandu ibili bada, kontratuaren exekuzio epea betetzeko orduan, enpresari berari egotzi dakizkion kausengatik, bai epe osoari dagokionez bai, hala badagokio, epe partzialei dagokienez, administrazioak aukera egin ahal izango du, aintzat hartuta kasuaren egoerengatik, kontratua amaitzeko, bermea galduz, edo eguneroko penalitateak ezartzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,50 euroko proportzioan.

Berandu ibiltzeagatik penalitateak iristen diren bakoitzean kontratuaren prezioaren ehuneko 5en multiplo batera, Kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua amaitzeko edo kontratuaren exekuzioarekin jarraitzea erabakitzeko, penalitate berriak ezarrita.

B) PRESTAZIOEN EXEKUZIO PARTZIALARI BURUZ EDO PRESTAZIOAK AKATSEZ BETETZEARI BURUZ

Baldin eta enpresa kontratatuak, berari egotzi dakizkion kausengatik, ez badu betetzen kontratuan definitutako prestazioen exekuzio partziala edo prestazioak akatsez betetzen baditu, administrazioak aukera egin ahal izango du era berean kontratua amaitzeko, eta bermea galduko du, edo eguneroko penalitateak ezartzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan, eta horiekin batera kalte-ordaina, sortutako kalte eta galerengatik.

C) KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK BETE EZ IZANARI BURUZ

Kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen kausengatik, ez baditu betetzen kontratuaren baldintza bereziak, ez betetzea joko da larritzat eta ekarriko du kontratua amaitzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 211.f) artikuluan jasoa.

22. AZPIKONTRATATZEA

Ondorengo hauek azpikontratatu daitezkeen prestazioaren zatiak dira:

- Egikaritze-proiektuaren eranskinak.
- Proiektu arkeologikoa
- Obraren egikaritze zuzendaritza

Ondorengo hauek azpikontratatu ezin diren prestazioaren zatiak dira:

- Egikaritze-proiektua idaztea.
- Obraren zuzendaritza.

23. ARRAZOIAK KONTRATUA AMAITZEKO

Badira arrazoiak kontratua suntsiarazteko, eta horiek daude ezarrita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta 306. artikuluetan.

24. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagozkio prerrogatibak kontratua interpretatzeko, kontratua betetzetik sortzen diren zalantzak argitzea, aldatzea onura publikoko arrazoiengatik, erabakitzea kontratua suntsiaraztea eta haren ondorioak zehaztea, betiere muga batzuen barruan eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintzei eta ondorioei lotuta.

25. HIZKUNTZA BALDINTZAK (EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIA)

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira: euskaraz.

Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

26. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA GUZTIENTZAKO DISEINUA (BALDINTZA BEREZIA)

Hornidura honen objektuak irisgarritasun unibertsala izan beharko du eta guztientzako diseinua eduki, modu horretara edozein ezgaitasun duen erabiltzailerentzako erabilgarria izan dadin. Zentzu horretan, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegileak jasotako baldintzak bete beharko ditu.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

27. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak, agiri honetan oinarrituta eginez gero, izaera administratiboa izango du, eta kontratuan xedatzen ez den guztian jarraituko zaio arau hauetan xedatzen denari: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, zati batean garatzen duena 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuena, baita ere, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, onartua 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koa, eta gainerako arauak, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkionak administrazio publikoen kontratazioari.

Kontraesanik izanez gero administrazio klausula berezien, agiri honen eta espedienteari lotuta gainerako dokumentazio teknikoaren artean, nagusituko da agiri honetan zehaztutakoa.

28. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak konpondu daitezke arbitrajearen bitartez, indarrean dagoen legedian xedatutakoarekin bat.

Usurbilgo Udala

I. ERANSKINA: ARDURAPEKO ADIERAZPENA (A artxibo elektronikoa)

".....jaunak/andreak, NA.....zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), **PELAIOENEA BIRGAITZEKO PROIEKTUA IDATZI ETA OBREN ZUZENDARITZA ERAMATEKO ZERBITZU** *kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa*

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Enpresa eskaintzaileak badauzkala kontratuaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasun juridikoa eta baliabideak.

II.- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen izenean jarduten duela eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko nahikoa duela sozietate horrek, edo bere kasuan, dagokion sailkapena duela, eta jarduera egiteko behar besteko baimenak dituela.

III.- Behean sinatzen duena eta ordezten duen enpresa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluak aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

IV.- Zerga eta Gizarte Segurantza obligazioak betetzen dituela, bai eta lan eta gizarte alorrean indarrean dauden xedapenak.

V.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatuta dagoela:

- *Bai,SPKL legeko 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa betez.*
- *Ez.*

VI.- Lizitatzailea inskribatuta dagoela Estatuko edo Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean, eta baiezko kasuan, ziurtagiria ofizioz eransteko baimena ematen duela. (jarri X dagokion kasuan).

- *Bai*
- *Ez.*

VII.- Kontratuaren esleipenduna izatera iritsiko balitz, bere onespena ematen duela kontratuaren lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte.

VIII.- Aurrekoez gain, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako bestelako baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen du eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduntzat proposatua den kasuan.

IX.- Atzerriko enpresaren kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

X. – Honako hau dela jakinarazpenak egiteko nire posta elektronikoaren helbidea:

EMAIL:.....

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Usurbilgo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimentzen.

⁄⁄- Bai,

⁄⁄- Ez.

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

IZEN-ABIZENAK

SINADURA

N.A.N

DATA

Usurbilgo Udala

II. ERANSKINA

ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI BALORAGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK (C artxibo elektronikoa)

Izena: .....
Helbidea: ....PK ……., NA zk. ……., tel……...

Nik ahalmen eta gaitasun juridiko osoa dut jarduteko, nire izenean edo …… ordez .....helbidea …….....PK..... ....., telefonoa ....., eta NAN edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa izan) zk.: ...., jakin dut Usurbilgo Udalak prozedura ireki erraztu bidez deitu duela **PELAIOENEA BIRGAITZEKO PROIEKTUA IDATZI ETA OBREN ZUZENDARITZA ERAMATEKO ZERBITZUA** *eta adierazten dut:*

1) Konpromisoa hartzen dudala aipatu lanak honako prezioan egiteko:
- Egikaritze Proiektuari dagokion kopurua: .....euro BEZ-ik gabe, %..... BEZ-a .....euro, guztira BEZ barne .....euro.
- Obra zuzendaritzari dagokion kopurua..... euro BEZ-ik gabe, %..... BEZ-a .....euro, guztira BEZ barne .....euro.

eta prezioan sartzen direla kontzeptu guztiak, horien artean, zergak, gastuak, tasak eta arbitrioak, edozein esfera fiskaletakoak, eta kontratistaren etekin industriala ere bai.

2) Egikaritze proiektuaren idazketa epea murrizten dudala: ..... egun natural gutxiago.

3) Badakit baldintza teknikoen agiriaren berri, administrazio baldintza berezien agiriaren berri eta kontratu honek jarraitzen dituen gainerako agirien berri, zeintzuk berariaz eta osorik neure gain hartzen ditudan, eta ontzat hartu.

4) Ordezkatzen dudan enpresak baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditu, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituenak, irekitzeko, jartzeko eta funtzionatzeko.

5) Halaber, nire burua behartzen dut lan eta zerga arloan araututakoa betetzen.

6) Borondatez onartzen dut gardentasun instituzionala ematea datu guztiei, lizitazio, adjudikazio eta exekuzio prozesutik datozenak, kontratua amaitu arte.

(non) ....., (noiz)..... ….....ren ….(e)an

Sinadura